

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Ortzaizeko herriak badaki zer dagoen jokoan

IÑAKI ALTUNA > 9

ANDONI EGAÑA: «Inork ez du hitz egiten ondo hitz egiteko, zerbait lortzeko baizik» > 18

2015eko uztailaren 11 | IX. urtea • 425. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



INGURUMENAREN ALDEKO BORROKA GARESTIA

«INGURUMENAREN SUNTSIKETAREN
AURKAKO JARRERA HARTZEAGATIK,
ASTEAN GUTXIENEZ BI PERTSONA
ERAILTZEN DITUZTE MUNDUAN». DATUA
EZ DA NOLANAHIKOA GIZAKIOK PLANETA
MEHATXUPEAN DUGUN GARAIA. > 4

GAUR8



**Garapenaren izenean
ekintzaileak hiltzen dituzte** 04

**Ingeles saioak, irakaslearekin eta
kafea alboan** 10

**Nekazaritza ekologikoa: Goimar
pentsu etxea** 14

**Andoni Egaña, ahozkotasunaren
bigarren aroaz hausnartzen** 18

Behatxulotik 23



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Greziar egoerari buruzko bost gogoeta labur
- 08 **Ander Gortazar:** Aireportuez (I)
- 09 **Iñaki Altuna:** Ortzaizeko herriak badaki zer dagoen jokoan
- 13 **Ainara Azpiazu «Axpi»**
- 16 **Arantxa Urbe:** Hango eta hemengo oporrak
- 17 **Iker Barandiaran:** Eraldaketa txikiak
- 21 **Mirari Martiarena:** Sua
- 21 **Koldo Sagasti:** Hitzordua, Subilla Gasteizen
- 22 **Myriam Arrue:** Zure webgunea irisgarria al da?



{ datorrena } Iñaki Soto

Greziar egoerari buruzko bost gogoeta labur

Erreferenduma deituz greziar agintariek egin zuten mugimenduak europar egiturak aztoratu ditu, idatzi gabeko arauak irauli dituelako. Ezetza garaipenak soka luzea izango du, batez ere europar ezkerrek hemendik aurrera asmatzen badu. Horretarako, estrategia eta lidergoaz gain, joera sozial eta ideologiko orokorrak aurreikusi beharko ditu. Izan ere, Greziaren kasuaz, geopolitikaz harago, politikaz ikas daiteke. Hemen idazten dudana zerrenda ez da inondik inora behin betikoa, noski.

DEMOKRAZIAREN BALIOA, KULTURA GISA

Gaur egun, demokrazia iraultzailea izan daiteke. Izan ere, orokorrean oso formalizatua eta instituzionalizatua dagoenez, bere jatorrizko balioetatik batzuk galdu egin ditu, edo, gutxienez, balio horiek oso apalduta azaltzen dira eguneroko bizitza politikoan. Zentzu horretan, krisiaren eragin duen pobreziaz gain, bizitza politikoa asko txirotu da gure testuinguruan. Egituren kontrolerako joerak eta beldurraren erabilera maltzurak demokrazia ahuldu dute. Libreki bozkatzeko eskubideak politika aberasten du, komunitate baten maila orokorra igotzen du. Horrela gertatu da bai Eskozian bai Grezian. Ezkerrek demokrazia maila kulturalean garatu behar du, bere kultura politikoan txertatu behar du. Horrela soilik izan baitaiteke iraultzailea. Pertsonalki, monismoa (arazo guztiek irtenbide on bat eta bakarra duten sinismena) baztertu eta pluralismoa landu behar dela uste dut, ez zentzu moralista txatxu batean, baizik eta sakonki.

EKONOMIAREN ETA POLITIKAREN ARTEKO HARREMANA

Ekonomia gizartearen egituraketaren oinarritzko arloa da, eta, ondorioz, baita gizarte aldaketarena ere. Marxek baieztatu zuen hori, eta kapitalistenak ere bat datoz. Nolanahi ere, gaur egungo fase historikoan, politikan eta ekonomian ematen diren botere desorekak eta polarizazioa itzelak dira. Handitzen ari dira, eta, nire ustez, ezkerrek aukera gehiago ditu politikaren alorrean. Grezian bai, behintzat. Horrek guztiak ekonomian eman daitezkeen urratsak birplanteatzen (sikiera epeetan) eta politika aldaketarako palanka nagusi gisa ulertzen lagundu be-

har digu. Yanis Varoufakis-en dimisioaren ostean, bideo hau berrikustea komeni da: <https://goo.gl/CS9xZG>. Guztian ados egon gabe ere, jakina.

ERREALITATE-PRINTZPIOA ARDATZ

Aurrekoarekin lotuta, idealismoa eta infantilismo ideologikoa behin betiko baztertu behar dira. Grezian, adibidez, KKE Greziako Alderdi Komunistaren eta Syrizen jokabide kontrajarriak gogoan hartu behar dira. Praktika politikoan errealitate-printzipioa nagusitu behar da. Horrekin batera, hobets ditzagun gramatika, espazio eta denbora markoa eta matematikak, horregatik ideien historia baztertu gabe. Mundua konplexua da eta sinplekeria iraultzaren etsaia da.

«GIZAKI BERRIA» ETA BIZIMODU ONA

XX. mendeko proiektu iraultzaileak «gizaki berriaren» ikuspuntu antropologikoarekin oso lotuta zeuden. Tama-

Idealismoa eta infantilismo ideologikoa behin betiko baztertu behar dira. Gogoan izan, adibidez, KKEren eta Syrizen jokabide kontrajarriak. Praktika politikoan errealitate-printzipioa nagusitu behar da

lez, iruditeria horren karikatura egin dugu maiz. Herritarrek ez dute horren antzik, eta izan behar dutenik ere zalan-tzan jar daiteke. Militante askok ere ez diote eredu horri jarraitzen. Alor honetan, sarriegi ezkerrek politika bazter-tzen du moralaren mesedetan. Edo biak nahasten ditu. Bizimodu onaren bilaketa modu dogmatiko eta autoritarioan garatzen da maiz.

ERANTZUN ZABALAGOAK ETA GLOBALAGOAK

Greziarrek europar testuinguruan kokatu dute beren borroka. Taktikoki inteligentea da eta estrategikoki derrigorrezkoa. Jakina, alternatibak nazio eta komunitateetatik sortuko dira, baina marko zabalagoak eta globalagoak behar dituzte. Besteak beste, Europak zentro izateari uzteko arriskua duelako. Gainera, geopolitika ezin da kontraesanen disoluziorako tresna dialektiko hutsa izan. •

{ txostena } Jose Angel Oria

ZENBAT GEHIAGO?

Garapenaren izenean gero eta ekintzaile gehiago hiltzen dituzte, Latinoamerikan batez ere

Gizakiok mehatxupean dugu planeta. Umeei abesten zaienez, Lurra gaixo dago eta estu laz-tandu beharko dugu sendatzea nahi badugu. Zientzialariek zenbakiak ipini dizkiete mehatxuei eta hondamendia saihesteko egin beharrekoa nabarmendu dute. Eta agintariek, berriz, arazoa beraien gailurretan aztertzen dute, baina ez dituzte hartu nahi zientzialariek gomendatutako pilulak eta sukarra gero eta handiagoa da.

Aita Santuak berak ere errieta egin berri die politikariei “Laudato Si” entziklikan: «Ingurumenari buruzko munduko gailurren porrotek erakusten dute teknologia eta finantzen mende dagoela politika. Interes partikular gehiegi dago. Errazegi, interes ekonomikoa guztien onuraren gainetik jartzen da eta informazioa nahasten da norberaren proiektuak ez kaltetzeko».

PARISKO HITZORDUA

Planetaren sukarra jaits dadin oso garrantzitsua izango da guztiek aipatzen duten Parisko gailurra, aurtan bertan abenduan agintariek egingo dutena, klima aldatetaren inguruan egin beharrekoa zehaztuko omen duen hitzordua.

Munduan zehar herritar asko dira, ordea, agintarien erabakien zain egon gabe lurra defenditzen dutenak, zauriei tiritak ipintzen dizkietenak. Eta horiek, kasu askotan, oso garesti ordaintzen dute ausardia, Frantziako Aita Santuak gauza bera eskatu arren: 2014an 116 ekintzaile hil zituzten mundu osoan, Global Witness nazioarteko erakundeak egin duen “Zenbat gehiago?” txostenaren arabera.

«Ingurumenaren suntsiketa-aren aurkako jarrera hartzeagatik, astean gutxienez bi pertsona erailtzen dituzte munduan. Kasu batzuetan Poliziak protestaldi batean tiro eginda; beste batzuek hiltzaile profesionalek hiltzen dituzte. Konpainiek beren negozioa egiteko lur gehiago bilatzen duten artean, gero eta herritar gehiagok ordain-

116

Iaz ingurumenaren aldeko 116 ekintzaile hil zituzten mundu osoan (epe berean hildako kazetarien kopurua ia bikoiztuz), Global Witness nazioarteko erakundeak egin duen «Zenbat gehiago?» txostenaren arabera. Hau da, 2013an baino 21 biktima gehiago.

%25

Brasil da herrialderik okerrenera propio hildako ekintzaile kopuruari dagokionez. Global Witness erakundeak egin duen txostenaren arabera, iaz 29 ekintzaile hil zituzten herrialde erraldoian (mundu osoan hildakoen %25), 25 Kolonbian, 15 Filipinetan eta 12 Hondurasen.

tzen du interes horien aurkako jarrerari eustea», irakur daiteke aipatu testuan.

Orrialdeotan lurra defendatzen saiatzen diren ekintzaile horiek nabarmendu nahi izan ditugu, azken bolada honetan ezagutu ditugun borroka batzuk gogora ekarriz. Lurrari eustea helburua izanik, normaltzat jo beharko da “Zenbat gehiago?” txostenean aipatzen diren biktimen %40 indigenak, jatorrizko herrietako kideak, izatea, beraiek baitira bizirauteko lurra- ren behar gehien duten gizakiak (lurra galtzen dutenean, herritar horiek beren bizimodua eta nortasuna ere galtzen dituzte; eta herri horiek, beren kultura eta hizkuntzekin batera, desagertu egiten dira).

Global Witness erakundeak onartzen du bere txostenean aipatzen diren kopuruak oso motz gera daitezkeela benetan gertatzen diren hilketekin alderatuz gero, gaiari buruzko datu

ofizialik ez baita izaten. Kontuan hartu behar da askotan Estatuen kudeatzaileak beraiek izaten direla ekintzaileak hiltzeko agintzen dutenak, beraz...

LOTSAZ HILDAKO INDIGENA

Afrikako Kamerunen lotsaz hil zen baka etniako kide bat, Armel, WWF Naturarentzako Mundu Funtza nazioarteko gobernuz kanpoko erakundeak (ingurumenaren kontserbazioari, ikerlanei eta oneratzeari buruzko gaietan lanean dihardu, teoriant bederen) duen egoitzan basozainek torturatu ondoren.

Survival International erakundeak salatu du gertatutakoa. Armel eta bere herria parke nazional izendatutako eremu batean bizi dira. Oihanean harrapatzen dutena jaten dute, baina basozainek «isileko ehiza» deitu diote beren jarduerari, ez baitzaie komeni: nahiago dituzte diru asko uzten dituzten turistak, abere handiak hiltzeagatik diru-


tza uzteko prest dauden horiek, beraien poltsikoetara ere iritsi-ko baita zerbait.

Basozainak Armelen herrira ailegatu ziren eta bertako guztiak ilara luze batean ipini zituzten, jaioberri bat eta bere ama barne: eserita eta eguzkiari begira. Denbora askoan horrela eduki ondoren, gizonezkoak eraman zituzten WWFren egoitzara eta jipoitu egin zituzten. Handik hilabete batzuetara hil zen Armel. Erasoaz geroztik bizirik jarraitzeak lotsa ematen ziola esan zien ondokoei.

Survivaleko adituek diote jatorrizko herriak direla basoei eta ekosistemei eusteko laguntzarik onena, eta munduan bioaniztasun gehien duten lekuen %80an indigenak bizi direla. Hala ere, herri horiek kanporatu egiten dituzte beren lurretatik, negozio egiteko enbarazu egiten dutelakoan. Kontuan hartu behar da parke nazional horiek bertan bizi ziren herriei ezer

Orrialde honetan turistak safari batean, Kamerunen.
GAUR8

Hurrengo orrialdean Berta Caceres Hondurasko ekintzailea, Goldman saria jaso berri duena.
GAUR8





galdetu gabe izendatu zituztela hiriburuko agintariak.

Orain arte beren bizimodua izan dena, orain debekatuta daukate. «Gure dieta aldatu egin dugu eta errazago gaixotzen gara. Gure azalari ez zaizkio gustatzen ez hemengo eguzkia ez bizimodua. Basoan osasuntsu gaude eta gizendu egiten gara. Orain guztiok gaude ahulduta, gaixotuta bezala. Gure arazoak ahazteko edan beste irtenbiderik ez dugu», esan zuen Mbaya herritarrek. Baka herriak ere izan ditu diruzalekeriak eragindako hildakoak, baina horiek ez dira ageri inongo estatistiketan. Ezta Global Witness erakundeak egingandakoan ere.

Afrikan bertan bestelako kasurik ere izan da azken bolada honetan, ospatzea merezi duten istorio horietako bat. Ipuin bat dirudi, baina benetan gertatuta-

koa da. «Uganda: adineko andre bat presidentearen aurka borrokatu da lurraengatik eta irabazi egin du», izenburua ipini zion hedabide batek Phil Wilmoten testuari.

AMONAREN TITIAK ETA PRESIDENTEA

Adineko andrea Keromela Anek da, atxoli etniakoa. Bere herria, Apaa, Ugandako iparraldean dago, Hego Sudango mugatik gertu. Bertako herritarrek bizi diren lurraren jabetza-titulurik ez dutenez, Yoweri Museveniren Gobernuak bereak izango balira bezala jarduten du.

Agintariak oso garbi ikusi zuten negozio egiteko aukera: Apaa herria dagoen lekutik beste puntu batera eraman eta eremua Bruce Martin Hegoafrikako dirudunari saldu (ehizarako eta beste kirol batzuetarako erabili nahi zituen lurrok).

info+

**Atxoli etniako
Keromela Anek
adineko andreak eta
Apaako herritarrek
Ugandako agintarien
aurrean apirilaren
16an egin zuten
protesta
eraginkorraren
bideoa, ingelesez:**

<https://www.youtube.com/watch?v=F4DdYt-SnsA>

Apirilaren 16an, Daudi Migereko Lurralde ministroa eta Nyakairima Aronda jeneral eta Barne ministroa herrira joan ziren, beren asmoak bete nahian. Baina Apaara iristen ari zirela, Keromela Anek ikusi zuten errepidean etzanda, eta larrugorrik. Beste emakume batzuen laguntzarekin, negarrez ari zen, eta hiriburuko bisitariak iraindu zituen. «Migereko garrasika hasi zen eta Arondak nahiago izan zuen emakume haiei ez begiratzeari», idatzi du Wilmotek.

Lekuko batzuek adierazi dute Arondak presidenteari hots egin ziola (hiru hamarkada daramatza karguan Ugandako diktadoreak), eta emakumeei tiro egiteko agindua jaso zuela. Ez dugu jakiterik presidenteari zer agindu zion, baina zer egin zuten guztiek ikusi ahal izan zuten: funtzionario guztiak joan egin

ziren herritik. Herritarren garai-pena, agintearen porrota.

TheEcologist.org webguneak esplikatu du Aneken protestaldiak bazuela aurrekaririk Apaan bertan. Orain lau urte UWA Uganda Wildlife Authority erakunde ofizialeko langileek eta zinegotzi batek su eman zieten etxolei eta uztari, bertan bizitzeari legez kontrakoa zela esanez (lurra Gobernuaren jabetza delakoan). Gainera, Okot Alaba 29 urteko neska biluztu eta jipoitu egin zuten, hil zuten arte, bere etxetik atera nahi ez zuelako. Okot Anek beraren alaba zen.

CACERESENTZAT «NOBEL BERDEA»

Geroztik mehatxuka askotan joan zaizkie Gobernuaren ordezkariak. 2012an presidentea bera Apaa ondoko herri batera joan zen, herriko lurra Madhvani konpainia multinazionalari

eman behar zitzaizkiola esanez. Museveniren mehatxua entzutean, herriko adineko andreak biluztu egin ziren. Seinale txarra, Afrikako leku askotan norberaren amaren adina duen emakume bat biluztea madarikazio modukoa baita. Geroztik Museveni ez da bertaratu eta Keromela Anek heroitzat dute herritarrek.

Tankerako merituak ditu Berta Caceres hondurastar ekintzaileak ere. Apirilean Goldman Saria, edo “Nobel Berdea”, eman zioten Agua Zarcako urtegi proiektuaren aurkako borroka dela-eta. «Ez bortxatzeko eta jipoitzeko mehatxuek, ez bere ama hiltzeko eta alabak bahitzeko mehatxuek, ezta bere lagunak erailketek ere ez dute lortu emakume hondurastar hau geldiaraztea», idatzi dute BBC kate britainiarraren webgunean.

LENCA HERRIA BAT EGINDA

Caceresek lenca etniako herritarrek antolatu zituen, Sinohydro Txinako konpainiak eraiki nahi zuen urtegiaren aurka. Enpresak ekimenarekin ez jarraitzea erabaki zuen azkenean eta Munduko Bankuak ere atzera egin zuen, mobilizazioen eraginez.

Chris Moyo Global Witness erakundeko adituaren ustez, Caceresen kasuak oso ondo islatzen du Hondurasen ingurumenaren aldeko ekintzaileek jasan behar izaten duten jazarpena.

Honduras da gaur egun ingurumenaren aldeko ekintzaileen tzat lekurik arriskutsuena (populazioa kontuan hartuta), Global Witnessen arabera. Caceresek makina bat mehatxu jaso ditu bere jardueraren eraginez, baina inork ez du lortu emakumeak atzera egitea. «Gaur egun 400.000 inguru lenca gara. Hondurasen eta El Salvadorreko ekialdean milaka urte egin ditugure herriak. Naturaren zaindaria gara, lurrarenak, eta, batez ere, ibaienak», dio hondurastar ekintzaileak, lenca herriaren tradizioaren arabera emakumezko espirituak ibaian bizi baitira, eta emakumeak dira espiritu horien zaindari nagusiak.

Ibaien aldeko borrokarik handiena da Agua Zarcakoa. Rio



Kutsadura eragin duen konpainia desagertuta ere, herritarrek mobilizazioekin jarraitzen dute Indiako Tamil Nadu estatuko Kodaikanalen. Hindustan Unilever konpainia dute jomugan.
Punit PARANJPE | AFP

Eskuineko orrialdean, Peruko Tia Maria proiektuaren aurkako mobilizazio bat (goiko irudian) eta Southern Peru Copper Corporation konpainiaren kamioi handi bat (behekoan).
GAUR8

Blancoko herritarrek 2006an konturatu ziren makineria astuna sartzen ari zirela. Gobernuak ez zien ezer esan bertakoei, baina proiektu hidroelektriko bat abian jartzeko asmoa zegoela ikusi zuten.

Hondurasen azken urteotako bilakaera ulertzeko ezinbesteko datua da 2009ko estatu kolpea. Geroztik sailkapen negargarri guztietan goiko postuetan ageri da herrialdea, baita ingurumenaren aldeko ekintzaileen hilketei dagokienez ere. Gauza bera gertatzen da proiektu erraldoiekin: geroztik horrelako ekimen asko sortu da.

«Agua Zarcako proiektuarekin aurrera egin izan balute, herritar asko bertatik beste nonbaiteira eramango zituzten; ezinezko izango litzateke nekazaritzarekin jarraitzea. Ez baitute ibaia bakarrik pribatizatu nahi, ondoren dagoen eremu zabala baizik. Ibaia komunitatearen ondasun izatetik esku pribatuetan egotera pasatzen da», adierazi dio Berta Caceresek BBC kateari.

Herritarrek makina bat batzar egin zituzten proiektuaren berri

izateko. Beraien kezkek Gobernuaren aldetik erantzunik jasotzen ez zutenez, 2010ean Caceresek hiriburura eraman zuen protestaldia.

ERREPIDE MOZKETAK

Tegucigalpako mobilizazioak ez zuen gauza handirik lortu eta 2013an errepide mozketekin hasi ziren, konpainiak makineria eramaterik izan ez zezan. Oso garai gogorra izan zen, era guztietako pertsona armaturi egin behar baitzieten aurre: soldaduei, polizia, zaindari pribatuei, sikarioei... Lenca herriaren hiru buru hil zituzten orduan. Horietako bat Tomas Garcia zen. Berritiro egin zion militarra atxilotu zuten, baina berehala aske geratu zen.

Sinohydrok atzera egitea erabaki zuen, eta herritarren jarre-eragindako erabakia zela erantsi zuen. Baina dagoeneko sortu dira proiektuarekin jarraitu nahi duten beste konpainiak, Alemaniako Voith Hydro esaterako. Borrokan segitu behar!

Peruko giza mugimenduak ere nabarmendu dira azken bo-

lada honetan meatzaritza proiektu jakin batzuen aurkako borrokarengatik. Tia Mariako proiektuaren aurkako protesten eraginez dagoeneko sei ekintzaile hil dituzte, baina mobilizazioekin jarraitzen dute.

Tia Mariako proiektua Peru hegoaldeko Arequipa departamenduan jarri nahi dute abian, Islay probintzian. 1.400 milioi dolarreko inbertsioa iragarri zen hasiera batean.

Meategia noizbait lanean hasten bada, urtean 120.000 tona kobre aterako dute bertatik. Arazoa da SPCC Southern Peru Copper Corporation konpainiak ez duela inolako sinesgarritasunik bertako nekazariarentzat. Protes-ten eraginez, maiatzaren 15ean SPCCk bi hilabeteko «etenaldia» iragarri zuen.

GEZURREZ BETETAKO PROPAGANDA

Konpainiak sekulako garrantzia ematen dio propagandari. Youtuben sartuz gero, irakurleak Tia Mariako proiektua goraipatzen duten makina bat bideo aurkituko ditu. «Etorkizuna iritsi da, poza iritsi da», entzun daiteke

1400

Tia Mariako proiektua Peruko hegoaldeko Arequipa departamenduan jarri nahi dute abian, Islay probintzian. 1.400 milioi dolarreko inbertsioa iragarri zen hasiera batean. Meategia noizbait lanean hasten bada, urtean 120.000 tona kobre aterako dituzte bertatik.



ageri dira Tia Mariakoan: proiektuarekin aberastu nahi dutenen propaganda, horien interesen alde lan egiten duten teknikarien txostenak, aurkako manifestarien kriminalizazioa Poliziaren eta hedabide nagusien aldetik, agintari jakin batzuen ustelkeria, mehatxuak... Baita hedabide ausart batzuen informazioa eta Arequipatik kanpoko herritar eta elkarten elkartasuna ere.

Edonola ere, Peru ez da herrialderik okerreana, propio hildako ekintzaile kopuruari dagokionez, Brasil baizik. Global Witness erakundeak egin duen txostenaren arabera iaz 29 ekintzaile hil zituzten herrialde erraldoian, 25 Kolonbian, 15 Filipinetan eta 12 Hondurasen.

LATINOAMERIKA, TXARRENA?


Kontinentei dagokionez, Latinoamerika litzateke txarrena, Global Winesseko adituek egingako kalkuluen arabera bertan 88 ekintzaile hil baitzituzten iaz (116 mundu osoan). Txarrena, ala onenetarikoa? Bertan gutxienez zenbatzen dituzte hildako ingurumenaren aldeko ekintzaileak, Afrikan, esaterako, oso zaila dena.

Raimundo Rodrigues da Silva 42 urteko nekazariari tiro egin zioten iaz Brasilgo ipar-ekialdeko Maranhao estatuan. Rodrigues bere herria mehatxupean daukan latifundioaren aurkako borrokan nabarmendu zen eta horregatik sartu zuten bere ize-na "zerrenda beltz" batean.

Global Winessek dio Brasilen 477 ekintzaile hil dituztela 2002az geroztik, kasu gehienetan lurraren jabetza eta erabile-rarekin lotura duten gatazken eraginez. Normalean ez dituzte hiltzaileak harrapatzen eta krimenak zigorrrik gabe geratzen dira. Rodrigues salbuespen bat da, ustezko hiltzailea espetxean baitaukate, epaiketaren zain. Diogo Cabral CPT Lurraren Batzorde Pastoraleko abokatuak adierazi du herrialdean lurraren aldeko lanean aritzeagatik hildako beste 1.200 lagunaren kasuak artxibatu egin dituztela epaileek, arduradunak zigorrrik gabe uzteko.

14

OEFA Peruko Ingurumenaren Ikuskatze eta Balioztatze Erakundeak 14 isun ezarri dizkio Southern Copper konpainiari. Arequipako nekazariak uste dute beren jarduera amaitu egingo dela meategia lanean jarritz gero.



parke batean korrika dabiltzan umeen irudiekin batera.

Botoa eskatzen ari dela dirudien bideoan guztiak pozik ageri dira, gauza guztiak garbi daude, ez da hautsik ageri, guztiak daude irribarretsu. 3.000 lanpostu eskaintzen zaizkie bertakoei, milioi askoko inbertsio bati esker. Garapena, ongizatea, zorrozatasuna... zoriona agintzen du konpainiak. «Gure ingeniariak lau urte baino gehiago egin dituzte kobrea ateratzeko kon-

ponbide egokienaren bila, ingurumena ez kaltetzeko», jarraitzen du bideoak. Baina lan horrek Arequipako herritarrak ez ditu konbentzitu.

Peru osoan sortzen diren gatazka sozialen %35 inguru hegoaldeko departamentuetan ematen dira, eta, kasu gehienetan, meatzaritzarekin lotura duten proiektuen eraginez.

2009ko San Fermin egunean aurkeztu zuen Southern Peru Copper Corporation konpainiak

ingurumen inpaktuaren azterketa. Bigarren azterketa eskatu behar izan zuen, adituek lehengoan ikusi zituzten gabezien ondorioz. Inpaktuaren azterketa berria 2011n aurkeztu zuten, herritarren protesten artean. Proiektua geldirik egon zen 2013ra arte, eta konpainiak aurkeztutako dokumentazioari Gobernuak argi berdea eman dionez, aurtan protestak indar gehiagorekin itzuli dira. Eta protestekin batera, errepresioa. Na-

zio Batuen Erakundeak orain aste batzuk gaitzetsi egin zuen mobilizazioen aurka erabilitako indarra. Amerigo Incalcaterra elledunak Islay probintzian hildako manifestarien senideei bere dolumina adierazi die. Nazio Batuen Erakundeak Peruko Estatuari eskatu dio gertatutakoa behar bezala ikertzeko, ardurdunak zigortu ahal izateko.

Konpainia handien eta herritar xumeen arteko gatazka askotan izaten diren elementuak



Ander Gortazar Balerdi
Arkitektoa

Aireportuez (I)

Vistula Varsoviatik pasatzen dela probestuz, **Ponian zeresana eman duen kontu batekin hasiko dut gaurkoa -eta Euskal Herriarekiko antzekotasunak ez dira izango kasualitateak-.** Gdańsk, Gdynia eta Sopot Baltiko itsasertzeko hiru hiri dira, elkarrekin milioi bat biztanlera iristen ez den Trójmiasto eremu metropolitanoa osatzen dutenak. Aireportua, 2012an berritua, Gdańsken dago, hiri-erditik 15 kilometrora, eta Gdynia erdigunetik 30 kilometrora. Askotxo, gdyniar batzuen irudiko; ea zergatik duen Gdańskek aireportua izateko eskubidea eta Gdyniak ez, demontre.

Kontua da bigarren aireportu bat eraikitzen hasi zirela Gdynian, diru publikoaren erabilera optimoz betiere, eta dena primeran zihoala Europar Batasunak esan zuen arte ezetz, proiektuak ez zuela halako laguntzarik justifikatzeko moduko errentagarritasun sozialik, 30 kilometrora duen Gdańskek aireportuak arazorik gabe betetzen dituelako biztanleriaren irisgarritasun beharrak. Laguntza publikoak itzultzeko eskatu zioten aireportua kudeatzen duen enpresari, eta honek porrot egin zuen ezinbestean.

Istoria honetaz oroitu naiz Biarritzeko aireportuak izena aldatu duela irakurri dudanean. “Aéroport de Biarritz Anglet Bayonne” izen katramilatsuegia alboratu eta “Biarritz Pays Basque” errazagoa, marka bati lotuagoa eta zerbitzatzen duen lurraldearekin koherenteagoa aukeratu dute, «aireportuak ez baitu soilik BAB aglomerazioa zerbitzatzen, Euskal Herria baizik, hegoaldeko zati bat barne».

Intuizioa eta Google Maps bat datoz, Gdańskek aireportutik Gdyniakora dagoen distantzia Biarritzeko aireportutik Honda-

rribikora dagoen distantziaren parekoa baita: 30 kilometro. Askotxo omen diren mugaz gaindiko 30 kilometro, 30 kilometro ziztrin azken finean.

Mugaren hegoaldean, Eneko Goia Donostiako alkate berriak Hondarribiko aireportua modernizatu eta lehiakorrago egin nahi duela adierazi zuen kanpainan; Ernesto Gasco alkateordeak, eskatzea libre baita, metro geltoki bat nahi du aireportuan. Aldi berean, badirudi Donostia-Baiona tren lotura zuzena egiteko proiektua aurrera doala pixkanaka, egungo sarea erabili eta geltoki bat lukeena, honenbestez, Biarritzeko aireportutik gertu.

Mugaz gaindiko lankidetzaren erabiltzea eta lurralde osoa zerbitzatuko duen aireportu bat -eta ez bi- lehenesteak zentzuko erabakia dirudi, nahiz eta obra publikoak aldebakarki eraikitzea, errazagoa izateaz gain, elektoralki profitagarriagoa ere baden “eraikuntza=aurrerapena” axioma hain barneratua duen herrian. “Administrazioen arteko lankidetzaren” kontzesio moduan ulertzen da, *looser* ludisten kontsolamendua. Zaila da argudiatzea helburua ez dela Hondarribiko aireportua ixtea, itxi ahal izateko baldintzak sortzea baizik.

Adibide bera jartzen dut beti: Basel-Mulhouse-Freiburg aireportua, Suitza eta Frantziak elkarrekin kudeatzen dutena 1950. urteaz geroztik. Bi estatu, interes komunak aintzat hartuta azpiegitura bat partekatzeko gai izan zirenak: non eraiki, nola ordaindu, nola banatu karga eta irabaziak. Elkarren artean lehiatuko zuten bi aireportu izatea baino, logikoagoa baitzerit zoten bakar bat partekatzeari. Eta hori aurrerapenaren kontra egitea bada, orduan arazo bat dugu, Houston. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Iñaki Altuna**

Ortzaizeko herriak badaki zer dagoen jokoan

Ortzaizen izandako atxilotetek gauza asko erakutsi dituzte. Irudi eta hitz adierazgarriak ekarri dituzte. Hori bai, inork ez du zantzua izpirik ere polizia indarren operazioak armak eta leherkariak zerrendatzeko eta armategiak zigilatzeke ETak abiatutako prozesuarekin –prozesua oztopatzearekin, hobeto esanda– zerikusia duela. Zenbait ondorio atera daitezke.

Espainiako legealdia amaitzeaz dago. Mariano Rajoy agintaldiaren amaieran da. Hilabete gutxi geratzen dira, eta, etorkizuna ahal bezainbeste baldintzatzeko asmoz, PPK bide polizial hutsa indartu nahi izan du, gatazkaren ondorioen kudeaketa egokia galarazi asmoz. Duenarekin eta ez duenarekin saiatuko da. Nazioarteko eta Euskal Herriko eragileek laguntza lortuz ETak aldebakartasunetik egin dezakeena ere trabatu nahi du, urrats horiek Euskal Herrian abiaraz daitezkeen herri prozesuen mesedetan jar daitezkeela uste baitu. Egoera nahasia, zantzaz betekoa nahi du, jakin badakielako gatazkaren ondorioen atalean aurrerapausoak eta aterabide txukunak ugarituko balira, eremu politiko huts-hutsean jarriko zatekeela arreta osoa, eta hor Guardia Zibilaren eta estatuen arteko elkarlan errepre-sioa ez dira nahikoa arrazoibide, ez behintzat euskal herritarrentzat.

Hauteskunde aurreko es-print horretan, Madril Parisen babes osoa jasotzen ari da. Lerrokatze garbia egin du Frantziako Gobernuak, aldatuko ez dena Espainiako hauteskundeak hain hurbil egonda. Hollanderen inguruan jarrera ezberdinak daudela entzun ohi da, baina, kontuak kontu, PPri oldarraldian laguntzeko erabakia da nagusi, nahiz eta Ipar Euskal Herrian indar eta eragile guztiek Frantziako Gobernuari beste politika bat eskatu. Parisiko Konferentzia egin izana horren adierazle da. Are gehiago, gaia Parisera eramateak urduritasuna eragin duela esan daiteke, ekimen arrakastatsu horrek arnas luzea izan baitezake konponbidearen aldeko indarrak erronkari eta erasoaldiari erantzuteko gai badira.

Ortzaizeko herritarrek erakutsi dute konponbidearen aldeko jarrera garbier balio politikoa. Ez dute eskema zaila erabili. Ulergarria da oso: bakea erasotzen ari dira eta bakeari lagundu nahi dioten gure bizilagunak atxilotzen ari dira

tzen ari dira. Tamainako erantzuna merezi du, eta zinez eman dute. Armagabetzea modu egokian gauzatu ahal izateko prozesua jasaten ari den erasoaren larritasunaz jabetu dira. Antza, hainbat arduradun politiko eta instituzional baino dezente gehiago.

ETari lagundu diola aitortu du Graxi Etxebeherrek (armagabetu nahi duen talde bati, atxilotuaren beraren hitzetan), eta, horrela, nolabait, zeharka bada ere, erakunde horren bozeramaile bihurtu da. Sinbolikoki. Zuzenez entzun ditu ETako kideen asmo, gogo eta nahiak. Euskal Herrian aspaldikoa da ETak uste duenaz espekulatzeke ohitura. Agirietan dioena da bere hitz ofiziala, baina hedabide gehienek eta zenbait bozeramailek beti ezkutuko asmoak eta bestelakoak leporatu izan dizkiote. Ezker abertzalean ere ohitura izan da galdera hau egitea: «Zer diote hauek?». Horixe, bada, dio ETak, Graxi Etxebeherrek botatakoa.

Ortzaizeko herritarrek erakutsi dute konponbidearen aldeko jarrera garbier balio politikoa. Ulergarria da oso: bakea erasotzen ari dira eta bakeari lagundu nahi dioten gure bizilagunak atxilotzen ari dira

Iruñean, San Fermin jaietan, ikusitakoarekin oso pozik eta etorkizunari itxaropenarekin begiratu, irribarretsu eta deblauki, Etxebeherrek argi bezain garbi azaldu du –atxilo eraman baino minutu batzuk lehenago hedabideen aurrean botatako hitzetan– ETA azken urratsak emateko prest dagoela eta horretan lagundu behar dela, engaiamendua behar dela, konponbideari lagundu behar zaiola. Esan daiteke, horrenbestez, ETak borondaterik ez duela edo ez duela aurrera egiteko asmorik dioen edonor fede txarrez ari dela. Ezjakintasuna, dagoeneko, ez da aitzakia. Lakuako Gobernuak eta EAJk bezala erakunde armatuari immobilismoa leporatzen diotenak errealitatea manipulatzeko ari dira, amaiera egoki eta ordenatu baten kalterako izan daitekeela asko axola gabe. Graxi Etxebeherri entzun besterik ez dago. Berak badaki zein den haien gogo. Etxean zituen. •

INGELESEZ HITZ EGITEKO SAIOAK, IRAKASLEAREKIN ETA KAFEA ALBOAN

Nerea GOTI

Zaila da akademien ordutegietara egokitzea eta sarri gramatika eskolak astunak izan ohi dira. Hori dela eta, EnglishCafé egitasmoa ipini dute martxan Bizkaiko taberna batzuetan. Bi orduko saioak dira, eta, prezio berean, irakaslearen azalpenak eta edaria jasotzen dituzte ikasleek.

Kafea goxo hartzeko moduko goiz freskoa egiten du eta Kikarea Coffe and Bakery tabernak ezin egokiagoa dirudi zerbait beroa edateko, Bilboko Indautxu auzoan. Kafe usaina lagun, egunkariak lasai irakurtzeko moduko tokia da, zaratarik gabea, etxean egindako bizkotxo ederrak gordetzen dituzten kristalezko estalkien aurrean. Mahaietara begiratu eta ezin asmatu gabiltza bezeroen artean bilatzen ditugun EnglishCafé programako parte hartzaileak zeintzuk diren. Ez dago inor koaderno eskuan. Solasean ari diren bizpahiru taldetxoen artean ere ez dirudi bat bera ere espresuki ingelesa praktikatzeko geratu denik. Beraz, tabernariarengana jo dugu. Hark esan digu ez dakiela seguru egun horretan geratuta dauden, ordutegi ezberdinak baitaude goizez eta arratsalde, eskolon hartzaileen neurritan.

Indautxuko hau bezalako Bilbo, Barakaldo eta Getxoko beste 11 tabernatan ere, guztiak ere «xarma» dutenak, daude ingelesez mintzatzeko taldeak. Ekimena EnglishCafé deitzen da, eta 8,5 euroren truke klasea eta edaria hartzeko eskubidea du ikasleak. Gramatikan sakontzen duten eskola «tipiko eta aspergarriekin bukatu» nahi du ekimenak. «Ingelesa ikasteko era ezberdina da, eraginkorra eta ordutegiaren aldetik ere oso eroso jende askorentzat», antolatzaileen esanetan.

Indautxuko Kikarea Coffee and Bakery tabernan aukeratu dugun saiora heltzen lehenak Pilar eta Miren dira. Adinez taldeko veteranoenak dira, eta ikasle eta hiztun apartak. Ez dute arazorik kazetari eta guzti saio bat egiteko. Mahaian jesartzeko esan digute, gainontzeko partaideak berehala helduko direla. Terese agertu da segituan, eta heltzen hurrengo Gabriella irakaslea izan da. Berantiarrena, Dani galdakoztarra, taldeko gazteena. Urrunen bizi dena ere bada, gainontzekoak Bilbo bertakoak baitira.

Zertarako biltzen dira Indautxuko kafetegi batean adin, zaletasun eta jatorri ezberdinetako bost lagun? Euskara ikasten ari direnen artean arrakasta handia lortu duen berbalagun edota mintzalagunaren antzeko

egitasmoa da EnglishCafé, baina berezitasunak dituena. Ingeles hutsez egiten diren saioak, eta hizkuntza praktikatzeko dira, hitz egiteko. Baina, berbalagunekin gertatzen denaren kontra, ordaindu beharreko saio hauetan irakaslea dago. Antolatzaileek nabarmentzen dutenez, gainera, irakasle guztiak natiboak dira.

Gakoa hitz egitea denez, hasierako agurretatik bertatik ingelesa da komunikatzeko erabiltzen den hizkuntza. Bi orduko saioa da eta irakasleak ez du helburua gogorarazi beharrik. Arazoa ez da ulermen, zailena ingelesez erantzutea da, hitz egiteko orduan sortzen baitira arazak, buruak hitza aurkitzen ez duenean edo, behin aurkituta, ahoskatzean asmatzen ez denean.

ASTEBURUAZ HIZKETAN, BAINA INGELESEZ

Agurren ostean, irakasleak asteburuan zer egin duten galdetu die guztiei, giro intimoa. Aspaldiko lagunak arteko elkarbizketa baten aurrean gaudela dirudi. Baina, kasu honetan, guztiek ere adin, bizimodu, zaletasun eta gustu ezberdinak dituzte eta horrek are aberasgarriago egiten du hizketaldia. Tereseri alaba zelan dagoen galdetu dio Gabriellak. Gaixorik

egon da, birus batek jota, eta begietako mina izan du. Azalpenen erdian, zalantza du ikasleak, ez du hitz bat ondo ahoskatu, eta, ondorioz, ez diote ondo ulertu. Gabriellak esku hartu du. Erditik tolestutako orri zuri bat eta boligrafoa dira irakaslearen tresna bakarrak. Etengabe idazten ditu hitzak eta erakusten dizkie taldekideei. Antzera ahoskatzen diren hitzak jartzen ditu paperean eta astiro-astiro ahoskatzen ditu ikasleek ezberdintasuna ikus dezaten. Beste batzuetan, hitz baten ondoan sinonimoa eta antonimoa ere jartzen ditu, hiztegia lantzeko. Adibide eta egoerak aipatzen ditu, testuinguru eta esanahi ezberdinak uler ditzaten ikasleek, baita hitzek dituzten ñabardurak jaso ditzaten ere. Bizia eta adierazkorrak da irakaslea eta keinuekin laguntzen ditu azalpenok. Berehala egiten ditu ulergarri hitz eta esamoldeak; gainera, azalpen arinak, jarraitzeko modukoak ematen ditu, sarri antzezpenekin lagunduta.

Tarteka ikasleren batek irakaslea gelditzen du zehaztapenen bat planteatzeko, edo ekarpen bat egiteko. Ez da maila txikiko taldea eta ikasle onak dira guztiak. Horren erakusle, ingelesarekiko duten interesa ez dela saioetara mugatzen,

Miren, Terese, Dani eta Pilar ikasleak, saioaren momentu batean. Lagun arteko giroa izaten da nagusi, eta, tarteka, irakasleak elkarbizketa gelditzen ditu esamolde zuzenak eman edo ahoskera zuzentzeko.

Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS



etxean ere lan egiten dutela, onartzen dute. Miren bilbotarrak adibidez urteak daramatza ingelesa ikasten. «Saioak hitz egiten askatzeko behar nuen bultzada izan dira», azaldu dio GAUR8ri. Alaba Ingalaterran du, eta, ingelesa ikasteko beharra betidanik izan badu ere, orain zentzu berezi bat du berarentzat ahaleginak, behar handiagoa sentitzen du. Azken urteetan, hizkuntza klaseak hartu eta utzi egin ditu. Esperientzia hau askoz eramangarriagoa egiten zaio. «Hitz egiten dugu, ez daukagu libururik, eta irakasleak erraztasun handiak ematen dizkigu, pazientzia handia du», onartu du. Maila ona badu ere, Miren ez da fidatzen. Dioenez, ikasitakoak Ingalaterran izango du suzko froga. Alabari ez dio klaseez ezer esan. Desiratzen dago berarekin ingelesez hitz egiteko, egiaztatzeko aurrerapean izan duen; hori izango da emaitzak neurtzeko momentua.

Oso ikasle fina ere bada Miren. Bere ikasketak ez dira saio hauetara mugatzen: liburuak ingelesez irakurtzen ditu eta hitzen zerrenda batekin azaldu da kafetegira. Banan-banan esanahiaren, ahoskeraren... inguruko galderak egin dizkio Gabriellari, eta txukun apuntatu ditu jasotako azalpenak koaderno batean.

MUNDUTIK BIDAIAU ONDOREN

Ondoan Pilar dauka. Bera ere Bilbokoa da. Azaltzen duenez, urte asko eman ditu idazkari gisa lanean, eta sarritan erabili behar izan du ingelesa bere lanbidean. Horrez gain, bere senarraren lanbideagatik munduan barna asko bidaiatu behar izan dutela kontatzen du, eta horrek ere «hitz egiten askatzera» bultzatu zuela azaltzen du. «Bidaiak egiten genituenean, senarra lanera joaten zen eta ni bakarrik geratzen nintzen; beraz, ingelesez hitz egin behar nuen derrigorrez». Hala ere, orain ez du horrenbeste erabiltzen eta oso ahaztuta daukala dio.

Klasea jarraitzen duen moduan ikusita, aldiz, bistakoa da ingelesa ez dela hizkuntza arrotza berarentzat. Hiztegia eta esamoldeak ezagutzen ditu eta erraz komunikatzen da. Azaltzen duenez, ahoskerak ere ezberdintzen ditu eta hori oso aberasgarria da. «Ahoskerak oso desberdinak dira. Gabriellarena, adibidez, amerikarra da», komentatu du.

Ilobekin hitz egiten du ingelesez, eta, dioenez, eurek dira aurrerapenak nabaritzen dituzten lehenengoak. Bere ustez, aukeratutako taberna egokia da. Gainera, taldean mota askotako jendea dago eta hori ere positiboa iruditzen zaio. «Esperientzia ona da «harreman berriak egiteko», dioenez.



Elkarriketa ez da gelditzen. Gai ezberdinak sortzen joaten dira, eta, ikasleek, zalantzak galdetzen dituzte. Beheko irudian, ingelesezko saioak eskaintzen dituen tabernetako bat. Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

Orri zuri bat eta boligrafoa erabiltzen ditu irakasleak hitzak eta esamoldeak idazteko, eta, jarraian, astiro ahoskatzen ditu. Ñabardurak azaldu eta egoerak antzezten ditu, ikasleek ezberdintasunak uler ditzaten, «OK» entzun arte

«Mintzalagunaren antzeko ekimena da, baina pedagogikoagoa; testuinguru ezberdinetan komunikatzeko beharra izaten duzu, gai ezberdin asko sortzen direlako», azaltzen dute ikasleek. Harremanak egiteko ere balio du



Terese plazentziarra da baina Bilbon bizi da orain dela hemezortzi urte. Azaltzen duenez, saioetan parte hartzeko erabakia hartu zuen «oso beharrezkoa, ezinbestekoa» delako ingelesaren ezagutza. Horrez gain, «betidanik» gustuko duela ere onartzen du. Esperientzia honetan sartu aurretik Hizkuntza Eskolan ere ibili izan da, baina «hau askoz entretenigarriagoa da, gai askoz hitz egiten dugu eta horrela hitz asko ikasten dituzu», kontatzen du.

«Mintzalagunaren antzeko ekimena da, baina pedagogikoagoa; testuinguru ezberdinetan komunikatzeko beharra duzu eta gai pilo bat sortzen dira, oso aberasgarria da», dio Teresek. Bere ustez, oso ondo pentsatuta dago taldeen neurria (lauzpabost lagun), eta, onartzen duenez, klaseetara joateko «desiratzen» egoten da.

Dani galdakoztarrak bi hilabete daromatza EnglishCafé ekimenean parte hartzen, eta asteen behin parte hartzen du saioetan. «Istripu bat izan nuen, eta, erabat sendatu bitartean denbora luzea izango nuenez, denbora tarte hau ingelese ikasteko aprobetxa nezakeela pentsatu nuen. Metodo hau ezagutu eta oso interesgarria iruditu zitzaidan», azaldu dio GAUR8ri. Saioek ez dute zerikusirik txikitatik ezagutu dituen akademietako ingeles eskolekin. «Erabat ezberdina da, askoz eramangarriagoa. Mintzapraktikan zentratzen gara, eta, hala, denbora oso azkar pasatzen zaigu».

EDOZEIN GAI DA ONA GIRO ONEAN PRAKTIKATZEKO
Bilborekin liluratutako amerikarra da Gabriella. Euskal Herrira etorri aurretik Nikaraguan bizi zen; bertan bilbotar bat ezagutu eta hona etorri zen duela hiru urte eta erdi. Sorginduta dago pintxoekin eta txakolinarekin, baina gustukoak ditu esku pilota eta barbakook ere, irribarre batekin onartzen duenez.

Elkarrizketetan oinarritutako irakaskuntza da Gabriellaren «espezialitatea». Komentatzen duenez, bereziki gustatzen zaio eskolak emateko modu hau, zerikusirik ez duelako eredu tradizionalarekin. Dioenez, pertsona eta irakasle gisa berarentzat askoz interesgarriagoa da ikasleekin hitz egitea, egunero egiten dutenaz aritu eta euren bizitzak ezagutzea.

Gaurkoan bidaide izan dugun taldean askotan hitz egiten dute musikaz, bi musikari daudelako taldean eta Bilboko Orkestra Sinfonikoko lagunak ere badaudelako tartean. Osagai guztiak, hortaz, kafe baten inguruan musikaz hitz egiteko. Baina beste edozein gai ere aproposa da hitz egiteko, giro onean ingelesa prakti-



katzeko, gauzak kontatzeko nahia eta beharra, biak, uztartuta. Gainera, azaldu digutenez, gai baten inguruan gauza asko esateko ez dagoenean, entzuteko prest ere egon behar da, besteen zalantza, akats eta esamoldeekin ere ikasten baita.

«XARMADUN LEKUAK»

EnglishCafé egitasmoaren arrakasta taldeen neurrian eta erabilitako lokaletan ere badagoela azaldu digute partaideek. Ildo horretan, antolatzaileek nabarmentzen dute bost ikasleko taldeak osatzeak «giro erlaxatuagoa» eragiten duela saioetan. Giroari dagokionez, gainera, zerikusi handia du saioa hartzen duen lekuak ere. Saiatzen dira toki erakargarriak, la-saiak, argiztapen onekoak bilatzen, eskolak ahalik eta testuinguru egokienean emateko. Bi orduko saioak dira, eta partaideak aukeratzen du zein den hobekien datorkion ordutegi eta tokia, betiere hizkuntza maila zehatz baten arabera. Izan ere, taldeak osatzeko, maila bereko ikasleak biltzen saiatzen dira, beti erraza ez bada ere. Diotenez, ezberdina da gramatika maila ona izatea eta komunikatzeko erraztasuna izatea, biak ez datoz beti bat.


Amaitzeko, ohar bat: Mirenek faltan botatzen du euskaraz hitz egiten ikasteko honelako sistema bat, ordutegiaren aldetik eskaintzen duen malgutasuna kontuan hartuta. Norbait animatzen bada...



KEINU TXIKIAK

aurreapauso handiak

TXUPINAZO EGUNEAN



NAGORERENGANAKO ELKARTASUNEAN



GERMAN RODRIGUEZEN OROIMENEAN



KIROLTASUNEZKO JARRERETAN



EUSKARAREN PRESENTZIAN!



iRRITZIA:



Ainara
AZPIAZU
«AXPI»



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

«Transgenikoekin gertatutako kutsadurak baserritar ekologikoak artoa ez ereitera bultzatu ditu»

da. Hau da, hausnarkariak larreetara bazkatzera ateratzen dira eta eguneko anoaren zatirik handiena baserrian bertan edota inguruko nekazaritza ustiapenetan lortu behar da. Pentsu ekologikoen lantegi batek zer funtzio betetzen du horren guztiaren aurrean?

Maila produktibo egokiak lortzeko ezinbestekoa da animaliei pentsua neurri txikiago edo handiagoan ematea; pentsua ezinbestekoa da abeltzaintzan. Amorrutik ematen digu "insumo" gisa kontsideratuak izatea, zer hitz itsusia! Ez gara "insumoak", aliatuak gara, pieza garrantzitsua abeltzaintza ekoizpenean. Badaude etxean zereala txikitzen dutenak, baina, kasu horietan, profesionaltasun maila jaistearen arriskua dago: etxeetako nahasgailuek ez dute ondo nahasten, ez dute ondo txikitzen, eta, ondorioz, bukarako produktuak ez du kalitate bera. Hori dela eta, animaliek behar dituzten arazoak pairatzen dituzte. Pentsuen etxeak, ordea, horretara jarrita gaude, pentsua ekoiztera. Makineria egokia daukagu, baita kalitatezko produktuak ekoizteko ezagutza ere.

Pentsu ekologiko eta konbentzionalen ekoizpenean desberdintasunak ba al daude?

Bai, nagusiki lehengaei dago kienez desberdintasun handiak daudelako: ekoizpen ekologikoan ez dira tratamendu fungizidak ezta kontserbagarriak erabiltzen. Horrek, uzta nola etorri den arabera (uztaren hezetasuna, tenperatura, biltegiatze baldintzak...), arriskuak hartzea suposatzen du, aukera gehiago edo gutxiago egongo direlako biltegiatzean arazoak sortzeko. Guk lehengaien txandakatze handia dugu eta orain arte apenas izan dugun arazorik zentzu horretan. 2013ko udan, ordea, sortu zitzaigun arazo bat lehengaei, uda euritsua izan zela-

Pentsu ekologikoen ekoizpen katea dauka Goimarrek 2004tik. Argitzen dutenez, pentsu ekologikoak kasualitatez hasi ziren ekoizten: «Momentu horretan, Mungiako hirigintza hedapenaren ondorioz, kokalekuz aldatu beharra izan genuen. Aldi berean, ekoizpen ekologikora gehitu berri zeuden hainbat abeltzain hurbildu zitzaizkigun eta pentsu ekologikoaren katea irekitzeko proposamena egin ziguten. Eusko Jaurlaritzaren aldetik ere interesa zegoen, eta pentsu ekologikoen lantegi txiki bat martxan jartzeko hautua egin genuen». Momentu honetan, pentsu ekologikoen lantegia bere sabai produktibotik gertu dago, 2.000 Tn/urteko ekoizpenarekin.

Zer-nolako pentsu eskaintza daukazue?

Pentsu ekologikoak eskaintzen ditugu edozein motatako abereentzat, untxien salbuespenarekin. Gainera, gure bezeroek beraien pentsuaren konposaketa diseinatzeko aukera ere badaukate. Guk horretarako aholkularitza ematen diegu.

Pentsu ekologikoak egiteko erabiltzen diren lehengaei zein jatorri daukate?

Lehengai ekologikoak ahalik eta gertukoenak izaten saiatzen gara: Arabatik, Nafarroatik, Errioxatik, Burgesetik... ekartzen ditugu. Hori bai, bi lehengai ez dira Estatu mailan ekoizten: soja, Amerikatik ekartzen dugu Italia bide, eta, artoa, berriz, Frantzia edota Italiatik inportatzen dugu. Arto ekologikoa ez da Estatu espainiarrean ekoizten duela zenbait urtetatik. Transgenikoekin gertatutako kutsadurak baserritar ekologikoak artoa ez ereitera bultzatu ditu.

Zer-nolako neurriak hartzen dituzue ekoizten dituzuen

pentsu ekologikoak transgenikoekin ez kutsatzeko?

Bi pentsu lantegiak erabat bananduta daude, izan ere, hori da kutsadurak saihesteko era bakarra. Egun merkaturatzen den soja transgenikoa izan ohi da. Gure fabrika kutsadura gertatzea ez da posible, dena dagoelako bananduta: lehengaiak biltzen diren harrera gunetik, prozesu guztia burutu arte, fabrikazioa, ontziratzea eta irteera barne. Euskadiko Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluak urtero egiten dizkigun analisiez gain, guk ere puntualki lehengaien analisiak egiten ditugu. Behin positibo bat izan genuen, Aragoiko arto ekologiko batean genetikoki eraldatutako organismoak agertu zirelako. Artoa polinizazioaren ondorioz kutsatu zen eta lotea deskalifikatu egin genuen. Harrezkeroztik, artoa Estatu espainiarretik kanpo erostea erabaki genuen.

Nola lor liteke pentsutan bertako elikagaien presentzia handitzea? Genetikoki eraldatutako organismoen laborantzaren debeku batek lagunduko lukeela uste duzue?

Ekoizle ekologikoen kopurua handituz, jakina. Eta bai, zalan-tzarik gabe, genetikoki eraldatutako organismoak ereiteko debekuak Estatuan arto ekologikoaren ekoizpena berreskuratzen lagunduko luke.

Pentsu ekologikoekin konbentzionalekin lortzen den maila produktibora badago heldzerik?

Bai, baina, maila produktiboan, pentsuak bezainbesteko eragina edo are handiagoa du animalien maneiuak. Hegaztien hazkuntza ekologikoan, esaterako, konbentzionalen lortzen dena baino ekoizpen maila altuagoak lortzen ari dira kasu batzuetan.

**Abeltzaintza ekologikoa lurra-
rekiko loturagatik bereizten**

GOIMAR PENTSU ETXEA

MUNGIA

Goimarrek 60 urteko historia du pentsu ekoizle gisa. Ikerrek eta Iraiak, Goimarreko merkataritza zuzendaria eta albaitaria hurrenez hurren, betidanik kalitatezko pentsua ekoiztearen ospea daukatela nabarmendu dute. Inoiz ez omen dute botikadun pentsurik egin, «ezta animaliekin egindako irinak erabili ere».

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua



Argazkiak: ENEEK

ko. Kontsumitzaileak horren kontziente ere izan behar dira, pentsu ekologikoaren maneiuak badauzka eta bere berezitasunak.

Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan pentsu ekologikoak egiten dituen lantegia izatea luxu bat dela esan genezake?

Hala uste dugu guk. Kontuan izan behar da Estatu espainiarren iparraldean soilik lau edo bost etxek ekoizten ditugula pentsu ekologikoak. Guk, EAeri zerbitzua emateaz gain, Nafarroa, Asturias, Kantabria, Errioxa... ere zerbitzatzen ditugu. Albaitari aholkularitza ere ematen dugu, plangintza higieniko-sanitarioei dagokionez. Edonola ere, argi utzi nahi dugu pentsu ekologikoak gure ekoizpen osoaren %10 inguru suposatzen duela, hau da, ezingo genuke Goimar mantendu soilik pentsu ekologikoa ekoiztuz.

Prezioari dagokionez, zenbatekoa da pentsu ekologikoen eta konbentzionalen arteko aldea?

Gure kasuan, eta ez gara garestienak, prezioa %60 altuagoa da. Gainkostu horren arrazoi nagusi-



sia soja eta arto ekologikoetan dago, atzerritik ekarri behar dira eta.

Soja ezinbesteko elementua al da animalien elikaduran?

Ekoizpenaren arabera da. Hegaztien hazkuntzan oso garrantzitsua da, arrautza proteina hutsa delako, eta, hain zuzen ere, proteina da sojak eskaintzen duena. Hausnarkarrietan beste alternatiba batzuk daude; ilarra edo baba kasu, bi adibide jartzeagatik. Guretzat errazagoa litzateke soja gabe lan egitea, beste gauza batzuen artean, lehengai garestia delako. Edozein kasutan, egokiena soja hemen ekoiztea izango litzateke, Estatu frantsesean egiten ari diren bezala. Koltza ere aukera bat izan daiteke, baina hemen ez dago ekoizpen ekologikorik. Gainera, 8oko hamarkadan koltza olioarekin gertatu zena eta gero, Estatu espainiar mailan oso gaizki ikusita dago.

Ba ote dago oztoporik pentsu ekologikoen formulak hobetzea eragozten duenik?

Goimarren ale osoekin irinak eta nahasketak egiten ditugu. Lehen, bakarrik irinak egiten genituen. Pentsu ekologikoen ekoizpenean sartu dugun azken berritasuna soja ekologikoaren olio gehitzea izan da. Pentsuak hobetzeko, bazka gehitzea aukera bat izan daiteke, formatu ezberdinak egin, abereek jateko errazagoak izan daitezten; malutatan egin, adibidez... Baina gauza horiek guztiek makinaria espezifikoaren beharra eskatzen dute, eta errentagarritasuna soilik kopuru jakin bat ekoiztera iristen zarenean lortzen duzu. Edozein modutan ere, pentsua malutatan egitea ez zaigu interesatzen; guk nahiago dugu argi ikustea zer den pentsuak eramaten duena. Ez dugu ezer ezkutatu nahi.



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Hango eta hemengo oporrak

Noiz dugu egun hori, gu lanean hasi eta zuek oporrak hartu behar dituzuen hori?», galdetu zidan ekaina hasieran ikasle baten aitona.

Ezustean harrapatu ninduen galderak, eta segundoak behar izan nituen irribarre batekin begira nuen aitona esaten ari zitzaidana “harrapatzeko”.

«Ekainaren 22an», erantzun nion, irribarrea itzuliz. Aitona hezitzaile izandakoa da, eta erretiratu dago gaur egun. Segidan akordatu nintzen nola kontatu zidan behin erretiratu zenean galdu zituela berak oporrak. Orain, lan-kide ginenok oporrak hartzen ditugunean hasten omen da bere lana: bilobak zaindu beharra, hain justu.

Uda sasoi betean ausartuko ote naiz oporrei buruz hitz egiten? Nork harra-pa litzake! Hala ere, zor da esatea hezkuntza mundua, irakasleez gain, hezitzaile askok osatzen dugula. Haiekin batera, sukaldeko, autobuseko eta zain-tzako langileek, eskolaz kanpoko begiraleek, garbitzaileek, zuzendaritzako ki-deek, idazkaritzakoek eta abarrek, bakoitzak bere esparruan, heziketa lan horretan jartzen dute bere aletxo. Eta ez dugu ahaztu nahi langile horientzat guztientzat lan baldintzak ez direla berdinak, ezta hurrik eman ere! Opor kontuak, hortaz, ez dira berberak izaten hezitzaile guztientzat. Horregatik, irakasleak eta hezkuntzako beste zenbait langile oporretan gauden arren, heziguneetan beste hezitzaile batzuek lanean jarraitzen dute, artean.

Euskal Herriko ikasle guztiak oporretan dira jada. Zer-nolako opor desberdinak izango dituen, baina, ikasle euskaldun batek zein herrialdeetan ikasten duen arabera! Lapurdin, Nafarroa Beherean edo Zuberoan ikasten badu ikasle horrek ikasturte bakoitzean bost oporraldi izango ditu: Omiasainduko (Santu Guztietako), Eguberriko, Neguko, Udaberriko eta Udako oporrak.

Ikaslekua, berriz, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako edo Nafarroa Garaiko heziguneren bat baldin bada, ikasle horrek hiru oporraldi izango ditu ikasturteko: Eguberriko, Aste Santuko eta Udako

oporrak. Gainera, ikasturtea hasi eta amaitu ere egun desberdinetan egingo dute. Lehendabiziko hiru herrialdeetako ikasleentzat irailaren 1ean hasten dira eskolak eta uztailaren lehen astean amaitzen dira. Beste lau herrialdeetakoentzat, aldiz, amaitu San Joan bezpera bueltan amaitzen dira, eta, hasi, irailaren bigarren astean.

Bateko eta besteko eskola-egutegiak alderatuz gero, ikus daiteke ikasturteko eskola egun kopurua bertsua dela lurraldeko hezigune guztietan. Eskola-egunak eta opor-egunak banatzeko eta antolatzeo planteamenduan bereizten dira, batik bat.

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako edo Nafarroako eskola-egutegi bat aztertuz gero, lehen begi kolpean ikus daiteke oporrak hiruhilekoen amaieran pilatuta daudela. Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako heziguneetan, ordea, gutxi gorabehera zazpi astero bi asteko opor egunak izaten dituzte. Zenbat buru hainbat aburu, oporren ka-

suan ere sistema baten nahiz bestearen aldekoak eta aurkakoak baitira bazterretan! Eta oporren antolaketan ere hain desberdin gure heziguneak!

Lantzean behin berpizten da oporren gainera eztabaida, ikasleek eta haien arrimuan baita irakasleek ere. Familia asko dira ikasleen udako oporraldiak luzeegiak direla diotenak, seme-alaben oporrak lan-egutegiarekin ezkondu ezinik, askotan.

Ekainaren 22an agurtu genituen ikasleak ditut buruan. Gehienek udako koaderno estreinatu gabeak zermatzaten besapean, edo ikasturtean zehar ikasitakoak ez ahazteko ariketa sortak. Agendan, berriz, udaleku, barnetegi, ikastaro eta abar askotarikoen hasiera data ongi markatuta. Haiek ere izango dute zer esan, nire ikasle txikiaren aitona gisan.

Oporrak opor, hezkuntzako edo ez hezkuntzako, goza dezazuela egun luze hauetaz! •



Hezitzaileek oporrak hartzean hasten dira lanean aitona-amonak.

Gari GARAIALDE | ARGAKZI PRESS

{ koaderno } Iker Barandiaran

Eraldaketa txikiak

A itatasunak –amatasunaren antzera– asko dauka ematetik, baina baita jasotzetik ere. Asko eman behar izaten da, norberarengan bakarrik pentsatzeari utzi eta beste batzuegan ere arreta eta ardura jartzera behartzen zaitu. Gainera, emaitzak ez dira berehala ikusten, askotan badirudi ez daudela, baina gutxien espero duzunean agerian gelditzen dira eta itzelak dira. Horren harira, gogoan dut lehenengoz aita izan behar zen lagun bati «umeez lana ematen dute, baina konpentsatzen du» esan niola; eta alboan nuen beste lagun batek, inoiz umerik ekarri nahi ez duenak, erantzun zidan “konpentsatzea” esamoldeak asko daukala alde negatiboa ezabatu nahi baina ezin izateaz.

Gure seme-alaben etorkizunak kezkatzen gaituen seinale, aste honetan bertan eraldaketa soziala, autoeraketa eta jasagarritasuna ipar nagusi zituen batzar batean izan naiz. Han entzun diot pertsona bati esaten azken hogeitaz urteotan, iraganean ez bezala, Debagoienak ez duela aipatutako helburuen inguruko pauso sendorik eman, eta aspaldi honetan beste eskualde batzuek aurre hartu diotela.

Ez dut han entzundakoa gezurra denik esango, baina ipar horiek osagai nagusitzat hartuta bailara honetako hezkuntza, industria eta euskalgintzako eragile nagusienetako batzuk mahai baten bueltan bertako herritarrok asebetetzeko moduko menua prestatzeko adostasunean eta lan egin nahian batzea ez dut bailara askotan ikusi. Hori ere bada zerbaiteen seinale; alegia, hori ez da zerotik sortzen, bada gene-etan barneratutako jarrera bat.

Hala ere, ez dut nik ukatuko paradoxikoki hamarkadatan kooperatibek eta beste enpresa batzuek eman dituzten aberastasun eta ongizate mailak ardura nagusi horiek kenduta beste alor batzuk sakontzeko aukera eman badigute ere, izugarri erlaxatu garelako eta uste daitekeen kontrara bestelako helburuak albo batera utzi ditugula.

Baina izan gaitezen apur bat chauvinistak eta eman diezaiegun balioa egiten ditugun lorpenei, horiek antzeman gabe nekez egingo diogulako itxaropenari aurre. Bere txikitasunean handia da, esaterako, orain dela bi aste Arrasaten lagun talde baten ekimenez gauzatutako

jaialdi erraldoia. Lagun talde bat Jul Bolinaga herrikide zenari omenaldia egin nahian hasi zen orain dela hilabete batzuk, beste lagun talde bat asmoarekin “kutsatu” zuen eta Udala ere laguntzeko prest agertu zen. Egia da Jul oso ezaguna zela herrian eta jende askok maite zuela, eta egia da ere berak sortutako RIP taldeak arrasto itzela utzi duela belaunaldi desberdinetan. Baina horri lana gogoz eta ondo egitea gehituta, eta ekimena parte hartzaile, garden eta ireki bilakatuta, lortutako emaitza itzela izan zen. Jende ugari ilusioz eta irmo lanean, beste askoren ispilu; eta, hala, 80ko hamarkadatik gaur egunera arte Euskal Herriko musika eszenan punk, rock eta antzeko doinueta zeresana eman zuten eta duten dozenaka eta dozenaka musikaririk hartu zuten parte ekimenean, aspaldian beste inon ikusi ez den bezala. Horiek guztiak pertsona batek –Jul Bolinaga–, musika talde baten ondareak –RIP– eta lan egiteko modu batek –elkarlana eta autoeraketa– erakarrira. Kartela zein izango zen iragarri gabe, jendetza izugarria bildu zen Monte-

Izan gaitezen apur bat chauvinista eta eman diezaiegun balioa egiten ditugun lorpenei, horiek antzeman gabe nekez egingo diogulako itxaropenari aurre

rion parkean, eta modu batean zein bestean parte hartu zuen jende guztia asebeteta gelditu zen emaitzarekin. Rock eszenan oraindik zeresan handia duen musikari batek esan zigun han bizi izandakoa errepikaezina izan zela; eta kanpotik etorritako lagun batek halakorik Arrasaten bakarrik dela posible. Bada, sinetsi dezagun pixka bat eta kontura gaitezen gauza txikietan dagoela aurrea egitea.

Adibide esanguratsua da, baita ere –hau ere musikarekin lotuta– Arrasaten bertan lagun talde batek bost edizio luzeetan inongo baliabiderik gabe Kooltur Ostegunak izenpean astero-astero kultura programazio mardula eskaini ahal izatea.

Emaitzak eta lorpenak, hau da, eraldaketa, gauza txikietan ikusten delako; poliki-poliki eta mimoz baina gelditu gabe lan eginda. •

«Bertsolariaren ezaugarri behinena belarri erne da eta horretan asko zor dio ahozkotasunari»

Ahozkoak gero eta garrantzia handiagoa dauka, baina, aldiz, gazteak gero eta narrasago moldatzen omen dira horretan. Nola landu daiteke ahozkotasuna hezkuntza arautuaren baitan? Galdera horri tiraka osatu dute astearen hasieran Donostiako Miramar jauregian “Bertsolaritza eta ahozkotasuna hezkuntza arautuan” EHUko Udako Ikastaroa Mintzola Fundazioaren zuzendaritzapean. Andoni Egaña bere ekarpena egin du “Ahozkotasunaren lanketa bertsolaritzaren bidez” izenburudun saioarekin, ahozko lezio ederra eskainiz.

Izenburuak norabide bakarra markatzen duen arren, Andoni Egaña bi norabideko begirada eskaini nahi izan du; batetik, bertsolaritzak nola lagun dezakeen ahozkotasuna lantzen, eta, bestetik, bertsolariaren oinarrietan zein garrantzia duen ahozkotasunak. Kitatu beharreko zorra iruditzen baitzaio.

«Ahoz komunikatzen den komunikazio oro» omen ahozkotasuna. Baina, ez hori bakarrik. Ahoz ekoizten dena bada, baina hori baino gehiago ere bai. Egañaren hitzetan, «ahozkotasunaren bigarren aroan» gaude. Egun, grafiaz laguntzen diren ahozkoaren pareko komunikazio moduen garaian gaude. Mezu elektronikoak, wathsappak, blogak... horiek guztiak ahozko komunikaziotik oso gertu ikusten ditu zarautzarrak.

Jonh Foley ahozkotasunaren ikerlariak egindako konparazioaren arabera, demagun pertsona hizketan hasi zenetik gaur egun arteko denbora tarte urte batekoa dela –alegia milaka urte horiek urtebeteko epearekin konparatuta–. Hala balitz, Gutenbergek inprenta abenduaren 30ean asmatuko zukeen. Hortik kontuak atera ahozkotasunak zer-nolako pisua izan duen komunikazio moduetan.


Gainera, azken 50 urteotan ahozkotasunak gero eta garran-

ANDONI EGAÑA MAKAZAGA

BERTSOLARIA

Ahozkotasunaren bigarren aroa bizitzen ari omen gara, baina belaunaldiz belaunaldi gero eta traketsagoa da gure ahozko jarduna. Paradoxa horri tiraka aritu da Andoni Egaña EHUko Udako Ikastaroetan, zer hobetu eta nola pista batzuk emanaz.

amagoia.mujika@gaur8.info



tzia handiagoa hartu du. Baina, belaunaldi gazteek ahozko gaitasun urriagoak dituzte. Eta horrek, noski, kezka sortzen du. Eta noren gainean erortzen da kezka hori? «Eskolaren gain erortzen da, lehen familiaren inguru hurbilak bere gain hartzen zituene beste batzuk bezala; bide heziketarena, sexu heziketarena edota ingurumenarena. Eskolari erori zaio galanta!».

JARIOA ETA DISKURTSOA

Ahozkotasunaz ari garela, ahoz produzitzen den orori buruz ari gara. Baina, horren baitan, Egañaren hitzetan, bi kontzeptu bereizi behar dira: jarioa eta diskurtsoa. «Jarioa momentu jakin batean hitzun batek hizkuntza jakin batean duen etorri maila da. Hori da jarioa eta hori ere bada ahozkotasuna. Baina, iruditzen zait, jarioari baino diskurtsoari begiratu behar zaiola. Eta badakit ‘diskurtsoa’ hitz itsusia dela, zentzu gutxieslea duela, ‘erretorikak’ edo ‘txapak’ duten bezala. Baina ‘diskurtso’ deitzen diogu, daukagun jarioa daukagula, estrategia komunikatibo batzuk aplikatu eta hortik lortzen dugun pilula komunikatiboari».

Eta diskurtsoak nabarmena du intentzionalitatea. «Egia da ahoz ari garenean gehienetan izaten dugula intentzionalitatea, baina diskurtso bat egiten ari garenean beti daukagu intentzionalitatea, beti daukagu helburua, norbait konbentzitu beharra». Diskurtsoa ez da bakarrik apaizaren sermoia edo politikariaren jarduna, diskurtsoa da, era berean, amonari 80 urte bete dituelako familia guztiaren aurrean esan beharrekoa; Zarauzko malekoian paseoan bezperan haserretu den bikotekidearen barkamena lortzearren egiten dena, edo guraso bilera batean irakasleak egiten duen ariketa gurasoak irakasle ona dela pentsatuz etxera daitezen.

Hizkuntzak, gehienetan, zerbait lortzeko balio du, intentzio bat dauka, helburu bat, «nahiz eta askotan ahaztu egiten zai-

gun». Eta helburu hori, gehien-gehienetan, hizkuntzaz kanpo dago. «Inork ez du hitz egiten ondo hitz egiteko, gauzak lortzeko baizik. Hori ahaztu egiten zaigu askotan».

Jarioa, etorria, hobetu edo kaskartu egin daiteke, hizkuntzaren erabileraren arabera. Bestelakoa da jario hori erabiliz eta estrategia komunikatiboak aplikatuz intentzio komunikatibo garbia duen jarduna jostea. Eta Egaña proposamen garbia jarri du mahai gainean: irakats dezagun diskurtsoak egiten.

EZ DAKIGUNA DISIMULATU?

Ahoz aritzea zer den zehazterakoan «desenfokea» dagoela iruditzen zaio Egañari. «Eskolaren eraginez, iruditzen zaigu ahoz aritzea dela beti zerbaiten berri ematea. Eta ez da horrela. Iruditzen zaigu ahoz aritzea dela ‘dakiguntxoaren’ berri ematea. Eta ez da horrela. Ahozkotasuna mendeetan zehar gehiago izan da ez dakiguna disimulatzeke era elegante bat, ‘dakiguntxo’ adieraztekoa baino».

Diskurtso hobe edo txarragotik harago, kontua da helburua markatzea eta zure diskurtsoa helburu horren arabera egitea. Zer egin behar duzu, entretenitu? Informatu? Bi gauzak? Pertsuaditu? Disuaditu? «Helburua beti dago hizkuntzatik kanpora eta hori egiten ikasi egiten da». Eta Egaña garbi dauka: «Eskolan diskurtsoak lantzen ikasten badugu, horrek mesede egingo digu ahoz zein idatziz, nahiz eta biak desberdinak izan».

«Eskolan simulatu egin behar da, eta ez disimulatu». Eskolak neska-mutikoak prestatu behar ditu kanporako, helburua ez da eskola bera. «Eta kanpoko baldintzak eskolara ekarri behar dira. Diskurtsoak egiteko helburuak markatu behar dira eta baita xede taldeak ere. Kanpoko baldintzak simulatu egin behar dira, eta ez disimulatu».

Ez da eginbehar samurra eskolaren gain jartzen dena, lehen etxean, kalean eta beste ertz batzuetan ikasten eta lantzen zire-



Argazkiak: Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

nak orain eskolaren gain uzten baitira. «Ez da erraza. Dagoena aprobetxatu behar da, baina, kontuz. Helburua eta xede taldea markatu. Hor dago 'Gu ta gutarrak' saioa, non gaztetxoek oso iaioak diruditen hitz egiten. Orduak eman ditzakete hitz egiten kameraren aurrean huskerien inguruko eztabaidan. Baina gai al dira bi minutuz xede talde jakin bati zuzendu eta helburu jakin bati begira hitz egiteko? Segur aski ez. Infantilizaziorantz goaz, 21 urteko protagonistek gauza ezdeusak kontatzen dituzte eta ikusleak 13 urtekoak dira».

Matematikarako edota igeriketakarako balio duen arau berdina balio du ahozketasuna lantzeko ere: jardun, jardun eta jardun. «Uraren konposizio kimikoa jakinda eta besoek egin

*«Ahozkoaren
ardura eskolaren
gain erortzen da,
bide heziketarena
edota sexu
heziketarena bezala.
Eskolari erori zaio
galanta!»*



beharreko mugimenduak papelean ikusita ezin da igeri egiten ikasi. Igeri egiteko uretan sartu eta aritu egin behar da», azaldu du Egañak, eskolaren gaitzetako bat agerian utziz.

AHOZKOTASUNA, BI NORABIDETAN

«Orain arte garrantzi gutxi eman diogu –eta horrelako foroetan gutxiago– eta bada garaia pentsatzen hasteko, ez bakarrik bertsolaritzak zertan lagun dezakeen ahozketasuna lantzen, baita aitortzeko ere nondik gatozen eta ahozketasunak zernolako garrantzia izan duen bertsolariaren iturriak sortzeko orduan».

Lehen esan bezala, Egañak bigarren norabide bat eman nahi izan dio bere gogoetari. 1980. urtearen bueltan, ingurua nola aldatzen zen begira zegoen jen-

de bat –esaterako, tabernak ez ziren lehengokoak, musika jartzen hasi ziren–. Eta konturatzen hasten dira ordura arte balio izan duten transmisio modu batzuk gainbehera datozela. Tar-tean da Xabier Amuriza. «Ordu-ra arte etxean transmititzen zena, kalean transmititzen zena, tabernan transmititzen zena... galtzen ari zen; eten baten aurrean topatzen dira, alarma guztiak pizten dira eta pentsatzen hasten dira bertsoa ere ikas daitkeela. Eta hor hasten dira sortzen bertso eskolak».

Eta hor, parean, zalantza; noraino sortzen da bertsolaria eta noraino egiten da bidean. Horretan sartu gabe, Andoni Egañak bertsolariaren ezaugarri nagusia zein den argitu du: belarri-ernea. «Bertsolariaren ezaugarri nagusia ez da ondo kantatzea;

ez da hizkuntzaren erabilpen maila. Bertsolariaren ezaugarri nagusia eta beharrezkoena belarri-ernea da. Belarri-ernea daukan bertsolariak aurrera egingo du. Eta horrek esan nahi du umetatik, bertsolari izango den hori –nahiz eta berak ere ez dakien bertsolari izango dela– pelma bat dela. Bazkaria bukatu eta jolasera joan beharrean helduen ondoan kontuak entzutera gertzen den hori? Hori belarri-ernea da. Hori da bertsolariaren ezaugarri behinena eta horretan asko zor dio bertsolariak ahozketasunari».

Ahozketasun lezio hori, gainera, era desberdinetan ematen da. Alegia, bertsolaritzara iristeko bide bat baino gehiago dauka belarri-erreak. Esaterako, bertsogintzan beti aipatu izan da Landetako Unibertsitatea. Hala

deitzen zitzaion Joxe Lizasok hartu zuen tabernari. Bertan iluntze askotan elkartzen ziren Joxe Lizaso bera, Joxe Agirre, Imanol Lazkano, geroxeago Gorrotxategi, Angel Larrañaga... eta Sebastian mutikoa han ibiltzen zen. «Landetako Unibertsitatea esatean denak imajinatzen dute kantuan aritzen zirela mahai baten jiran. Baina gezurra da, oso gutxitan egiten zuen kantuan. Bertsolaria nazkatuta egoten da kantatzeaz eta lagunartera iristen denean pasadizoak kontatzen ditu, adarra jotzen dio ondokoari, txisteak kontatzen ditu... Sebastian Lizasoren heziketa ez dator bertsok entzutetik, batik bat dator belarriak tente izatetik horrelako mahai jira horretan».

BERTSOLARIAK AHOZKOARI ZOR DIONA

Egañak bere kasu propioa ere aipatu du. Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolan ez zegoen bertsoa oso presente. Baina bidean irakasle izan zituen Manolo Urbietak, Andu Lertxundi, Mariasun Landa... «zorte handia». «Ni 18 urterekin konturatu nintzeanean bertsoak gustatzen zitzaizkidala eta hasi nahi nuela, igual harrokeria dirudi baina 10-8 silabak kontatzeko ez neukan arazorik, igual hori baino gutxiago. Urbietak klaseko lehen egunean ‘alaken, alaken’ idatzi zuen arabelean. Ez genekien zer esan nahi zuen –eta oraindik ez dakigu zer esan nahi duen–, baina ondo pasatzen genuen. Ohitu ginen euskal abesti tradizional eta berriak kantatzen; geroago Xabier Lete entzuten; eta Errobi entzuten. Hartara, 18 urterako ni oso ohituta nengoen kantuekin, 10-8 neurriarekin eta errimekin».

Jon Maiaren kasua desberdina da. Gurasoak erdaldunen seme, Zumarraga-Urretxutik Zumaira joan zen bizitzera haurra zela. Eta bere bidean topatu zuen Joanito Dorronsoro eta haren eskutik jaso zituen hainbeste eta hainbeste bertso zahar, oraino buruz dakizkienak.

«Bertsolarion kasuistikak nahiz eta oso desberdinak izan, denok daukagu komunean ahozkoaren iturri horretatik edan izana. Bertsolariok ahozko-



tasunari, batetik ez bada bestetik, asko zor diogu. Eta hori gutxi ikertu eta aipatu izan da».

INOIZ BAINO AHOZKOAGOA

Bertsolaritzaren eta ahozkotasunaren arteko hartu-eman horretatik tiraka, Egañak beste datu bat ere jarri zuen mahaiaren gainean: «Gaur egun inoiz baino ahozago egiten da bertsotan. Inoiz bertsolaritzak izan badu ahozkotasunaren ezaugarriak, gaur egun da».

Bada kontrakoa esan izan duenik, baina Egañak oso garbi dauka hori horrela dela. «Xabier Amurizak ekarri zuen iraultza biribiltasunean oinarritzen zen. Zenbat eta hitz luzeagoak, hobe. Gero, uste dut Maialen hasi zela esan nahi zuen huraxe esate aldera –esaten ez bazuen bere buruarekin haserretu egiten zelako– kontrakzio bertsogintza batekin. Gero eta hitz gehiago sartu, hobe. Eta hori ahozkoa da zalantzarik gabe. Horrek ez du esan nahi bata bestea baino hobe denik, baina bai batek ahozkotik gehiago duela».

Egañaren ustez, baina, kontrakzio bertsogintza horrek as-

«Bertsolarion kasuistikak oso desberdinak izan arren, denok edan dugu ahozkoaren iturritik. Gaur egun inoiz baino ahozago egiten da bertsotan. Inoiz bertsolaritzak izan badu ahozkotasunaren ezaugarriak, gaur egun da»

kotan ez du funtzionatzen funtzionatu beharko lukeen bezain ondo. Har dezagun Mendiluzeren bertso bukaera bat, «...hori egiten dunak arrazoia al du ba». «Zein ondo esan duen. Baina hori oso ahozkoa da, ezta? Ez du izaten hainbeste inpaktu entzulearengan. Askoz gehiago izaten du atzean gauden bertsolariongan. Horrek esan nahi bertsogintza oso ahozkoa dela, baina, benetan ahozkoa eginez gero, inpaktua galdu egiten duela», iritzi dio Egañak. Idatzizko ahozko bertsogintza da, segur aski, entzulearengana zuzenago iristen dena.

«Idatzizko-ahozko bertsogintzaren une onean gaudela uste dut. Baina gogoeta hori ez da berria, 1930. urte inguruan, Euskal Pizkundearen garaian, gogoeta egin zuten idatzizkoaren eta ahozkoaren inguruan. Eta handik hogeitaz konturatu ziren bi bideak egin zutela aurrera eta bi bideak uste baino batuago zeudela». Beraz, euskal kultur-gintzan ahozko-idatzizko elkar-tze horiek ez dira gaur goizekoak, aspalditik datoz bidean eskua emanda.

21.000 ikasle hezkuntza arautuan

Bertsogintza hezkuntza arautuan sartzeko lehen ahalegina 1982-83 inguruan eman zen Gipuzkoan. Geroztik, hazten eta indartzen joan da proiektua. Egun Euskal Herri osoan 21.000 ikaslek lantzen dute bertsogintza eskola orduetan eta 35 irakasle aritzen dira horretan. Baina zergatik eta zertarako? Hiztegia aberasten laguntzen du. Jendaurrean ahoz egiteko gaitasunak fintzen laguntzen du. Kantatzen ikastea, kontatzen ikastea da; noiz suabeago, noiz ozenago, noiz isildu... Sormenaren pizgarri ere bada. «Errazagoa da hesipean sortzea, baldintza batzuen barruan. Hesirik gabe sortzea zailagoa da, paper zuriaren aurreko bertigoia hor dago». Bertsoak laguntzen du paper zuriaren aurrean plantatzen. Diskurtso mota desberdinak lantzeko abildadea lantzen da, estrategia komunikatibo desberdinak jostekoa. Memoria lantzen da. Dialektikaren artean trebatzen laguntzen du, diskurtsoa ia inoiz ez baita bakarkakoa, normalean joan-etorrikoa izaten da. Argudiaketan ekarpen handia egiten du, orain jarrera bat eta segidan kontrakoa defendatzen asmatu behar baita bertsotan. Bizitzarako eskola aparta, zalantzarik gabe.

Sua

Mirari Martiarena

Sua erregai baten oxidazio prozesu azkarra omen da. Beroa,ugarra eta gasak sortzen dituela ikasi genuen kimikako klaseetan. Beroa ematen du, baita argia ere. Gerora ikasi dut, ordea, sua bizitza bezalakoa dela: pizten den momentutik modu desberdinetan irauten du. Azkar agor daiteke eta luze iraun dezake zainduz gero. Batzuetan pizten saiatzeko ahaleginak eta bi eginda ere ez da pizten. Nahi adina haize emanda ere ez da indartzen. Beste batzuetan txinparta txiki batetik egunetako beroa emango dizu. Itzali, beti itzaltzen den arren.

Azkenaldian suarekin badut sentipen berezi bat. Nire barruko sorgina pizten du

nonbait. Liluraturik geratzen naiz bere argiari begira; sorgindu egiten nau. Sutiondoan egiten diren tertuliak maite ditut, kandelak piztuta kontatzen diren istorioak, ematen eta jasotzen diren muxuak, sortzen diren itzalak,ugarrek hartzen dituzten forma deskribaezinak, edo, Maialen Lujanbiok abestu zuen bezala, “bi begiradek sortzen dutena”.

Baina suak ere badu ilunetik. Ez baitio esaerak alferrik “sua eta ura belaunetik behera”. Eta barruko suak ere hala behar du, belaunetik behera. Sutan jartzean ez baita jakiten txinpartak noraino irits daitezkeen eta zer albo kalte eragin dezaketen. Ezta errautsen azpian geratu diren txinpartak noiz indartuko diren ere. Guz-

tia bere neurrian, sutan jartzean probatzen baita nolakoa den heltzea.

Lagun bati kandela batzuk oparituko dizkiot. Nire obsesio txikiaren zati bat oparituko diot. Suak sortzen didan lilura. Suak pizten didana. Kandelak denborarekin agortu egingo dira. Piztualdi bakoitzean argizaria urtu, lurrundu eta ez da ezer askorik geratuko. Baina sinesten dut kandela sorta bat badela opari berezi eta beroa. Laguntasuna, maitasuna, errespetua... hain dira goxoak eta magikoak ezen sua bezala zainduz gero luze iraun dezaketela. Norbere esku dago magia hori mantendu nahi izatea. Irauten duten su geldoak hain dira goxoak, zaintzea gustatzen zaidala. Eta nik berotasun hori maite dut. •

Hitzordua, Subilla Gasteizen

Koldo Sagasti

Uztailaren 13tik 19ra bitartean *fracking* edo haustura hidraulikoaren aurkako Franckanpada nazioarteko kanpaldia antolatu dute Gasteiz inguruko Subilla herrian. Zama sinboliko handiko kokalekua aukeratu dute gasa ateratzeko teknika kutsakorren aurkako protestarako, izan ere, kanpaldia egingo duten orubean bertan ziren eraikitzeako Euskal Herrian lur azpiko hidrokarburoak ustiari behar zituzten lehenengo putzuak. Eraikitzeako zirela diot, iragan ekainaren 30ean EAEko Legebiltzarraren gehiengoak onartutako herri ekimen legegileak kolokan jarri duelako egitasmoa. Beraz, badute zer ospatu Fracking Ez plataformako kide-

ek, kanpaina luze bateko lan eskergaren emaitza baita proiektu txikitzaileari oztopoa jarriko dion lege ekimena. Hala ere, jakin badakite mehatxua ez dela guztiz uxatuko abian dauden proiektuak behin betiko gelditzen dituzten arte. Horregatik dira inoiz baino beharrezkoagoak Frackanpada bezalako ekimenak.

Baina tokian tokiko garaipen txiki horretatik harago, antolatzaileek ederki asmatu dute hidrokarburoen ustiaketaren inguruko gogoeta testuinguru zabalago eta nazioartekoago batera ekartzen. Horren adierazle dira jardunaldietako egitarau oparoa osatuko duten mundu osoko esperientziak eta gonbidatuak. Frantzian, Britainia Han-

dian, Kantabrian, Katalunian, Algerian, Errumanian, Kurdistanen edota Turkian *fracking*-aren kontra garatutako borroken testigantzak izango dira presente topaketetan; baina baita desarrollismoaren aurkako bestelako gogoetak ere, hala nola, Chiapaseko zapatisten lurraren aldeko borroka, TTIParen aurkako mugimendua, eskubide politiko eta zibilen murrizketak, edota eredu energetikoa. Izan ere, *fracking*-aren aurkakoa ez da tokiko proiektu zehatz baten aurkako borroka, kontsumismo mugagabe oinarritutako gizarte eredu jasangaitza kolokan jartzen duen mugimendua baizik, korda luzea ekarriko duena. Eta hurrengo hitzordua Subillan dauka. •

**Myriam Arrue**

EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Zure webgunea irisgarria al da?

Gaur egun, nekez uler dezakegu gure bizitza azken hamarkadotan garatu diren informazioaren eta komunikazioaren teknologiarik gabe. Horien artean web-a izan da arrakasta handiena izan duen eta, beraz, gehien erabiltzen den aplikazioetako bat. Nahi dugun informazio guztia dago webguneek osatzen duten informazio sare horretan.

Guztiontzat erabilgarria bada, zer esanik ez osasun baldintzengatik edota adinarengatik desgaitasunen bat duten pertsonentzat. Lehen eskuragarri ez zuten informazioa irits daitezke orain modu autonomoan, beste inoren laguntzarik gabe. Egunkaria irakurri, ikasketak burutu, leku batera iristeko argibideak jaso... eguneroko ekintza ugari erraztu dira web-en eta azken urteotan sortu diren laguntza teknologien bidez. Laguntza teknologiko horiek bereziki garatutako software edo hardware-ak dira. Adibidez, ikusmen-urritasuna duten lagunek pantaila irakurleak, braille lerroak edota lupa elektronikoak erabiltzen dituzte pantailan dagoen informazioa eskuratu ahal izateko. Era berean, mugimen-urritasuna duten lagunek beste teknologia batzuk erabili ohi dituzte informazio hori eskuratzeko: sagu zein teklatu egokituak, begiradaren jarraipen sistematik, hizketa ezagutzeko sistematik, eta abar.

Hala ere, laguntza teknologiek beren lana ongi burutzeko eta guztiok informazioa inongo oztoporik gabe iritsiko garela bermatzeko, webguneek zenbait baldintza bete behar dituzte, hau da, irisgarriak izan behar dute. Irisgarritasun baldintzen artean badaude derrigorrez bete behar direnak webguneak laguntza teknologiekin bateragarriak izateko. Horien artean dago, adibidez, irudi eta botoientzat ordezkotestak gehitzea, horiek emango baitiete ikusmen-urritasuna duten pertsonen informazioa. Aldi berean, audiorik ez duten bideoentzat deskribapen on bat egitea ere beharrezkoa izango da erabiltzaileek informazio hori galerarik gabe jaso dezaten. Sagu estandarra ez den beste gailu baten bidez nabigatzea ere erraztu behar da mugimen-urritasuna duten erabiltzaileentzat.

Bestalde, guztiontzat onuragarri izan daitezkeen baldintza batzuk ere definitu dira: webguneen nabigazio eskema erraza definitzea, informazioa modu argi batean egituratzea, webguneetan bilatzaileak erabiltzeko aukera ematea, hizkuntza argia eta sinplea erabiltzea, eta abar.

Webgune irisgarriak egiteko baldintzok biltzen dituzten gidalerro ezberdinak argitaratu dira, baina ezagunenak W3C web partzuergoak "Web Content Accessibility Guidelines" izenpean argitaratutakoak dira. Gidalerro horietan betebeharreko arauak lau printzipio nagusitan multzokatzen dira: edukiak eskuragarri egon behar dira edozein laguntza teknologia erabiltza ere; saguaren eta beste edozein gailuren bidez elkarrekintza bideragarria izan behar da; edukia modu argi eta ulergarrian aurkeztu behar da; eta teknologia zahar eta berriekekin bateragarritasuna bermatu behar da. Guztira hamabi dira bete behar diren arauak, baina horietako bakoitza betetzen den aztertzeo webguneen kodea sakonki aztertzea beharrezkoa da.

Webguneen irisgarritasuna ebaluatzeko modu eraginkor eta erraza tresna automatikoak erabiltzea da. Tresna horiek webguneen kodea aztertzen duten aplikazio informatikoak dira, eta emaitza bezala irisgarritasun txosten bat sortzen dute. Txosten horretan analisis topatu diren irisgarritasun oztopoak nabarmentzen dira. Tresnok oso lagungarriak suertatzen dira, ebaluazioan denbora asko aurrezten dutelako. Hala ere, jakin beharrezkoa da zenbait gauza ebaluatzeko ezinbestekoa dela pertsona batek kodea eskuz gainbegiratzea.

Erakunde publikoen webguneek legez irisgarriak izan behar dute. Azkenaldian administrazio publikoko webguneen irisgarritasuna zerbait hobetu den arren, baina, zenbaitetan oztopoak aurki daitezke oraindik. Halaber, hainbat erakunde pribatuetan irisgarritasuna kontuan hartzen hasiak dira. Izan ere, denontzat onuragarria da Google bezalako web bilatzaileak emaitzetan posizio hobekak lortzea. Irisgarritasunak ematen du hori. Hortaz, zure webgunea irisgarria al da? •



Mugimendu urritasuna duen pertsona bat, ordenagailuarekin.

GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JUAN FROGE. BIBLIOTECA NACIONAL DE ESPAÑA

BIZKAIKO BATZARKIDEAK GERNIKAKO ZUHAITZPEAN, 1864. URTEAN

Bizkaiko Foru Aldundiak ohiko batzar orokorra deitu zuen Gernikako Batzar Nagusietan 1864ko uztailaren 11rako. Bertan, beste hainbat gairen artean, azken osoko bilkuratik egun hura bitarte egindako jarduna baloratu, Bizkaiko jaurerriaren gobernu osaketa berria aztertu eta Arabaren, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren foru izaera aitortzen zuen 1839ko urriaren 25eko legearen gauzatzeaz hitz egin zuten. 1864ko uztailaren 25a izan zen batzar orokorra egin zen azken eguna. Ostean, hainbat batzarkidek Gernikako zuhaitzaren aurrean argazki bat atera zuten. Argazkia Juan Frogek egin zuen. Baionakoa zen sortzez, baina Bilbon bizi zen 1856tik garaiko kroniken arabera. "Irurac bat" egunkariaren 1867ko urriaren 8ko aleak argazkilariaren iragarki bat zekarren, berau Bilbora bizitzera joandako argazkilarien artean aintzinakoena zela zioena. Estudioa Correo kaleko 8an zuen. Berak Baiona, Biarritz eta Bilbori ateratako panoramikak edota Lersundi jeneralari eginiko erretratua egun ere ikusgai daude.



GAUR8 *ireki gure leihoa*

